

ZIRTAK

Julen Galbina

IDAZLEA

Perfekzioa: eskuak (eta III)

Institutu batean, ikasle batek galde-tzen dit gauean izan dudan ametsa gogoratzen ote dudan. Baietz erantzun diot, nora eraman nahi nauen jakin barik. Ametsa idatziz jartzeko gai naizen galdetu dit gero. Ezer erantzun aurretik, akordatu naiz nire ametsa zirimola hutsa zela: pertsonaiak nahasten ziren, lekuak aldatu, eta istorioak ez zuen zentzurik. Aitortu diot, beraz, nekez lortuko dudala irudi-pilaketa absurdu hori idatziz paratzea. Berak, orduan, erantzun dit ez naizela benetako idazlea: “Benetako idazleak badaki ametsak idatziz jartzen”, gehitu du.

Mukizu orojakileak aztoratu egin nau egun osorako. Bale, gaueko ametsi buruz galdetu dit, ez besteei buruz, ezta, oro har, buruan izan ditza-kezun ideiei buruz ere, baina gauza bera dira denak, edo hala interpretatu dut nik: buruan duena idatziz jartzeko gai ez dena, ez da benetako idazlea. Kakanarru halakoa... eta okerrena da egia dela: artelan bat sortu aurretik sumatu-tako edertasunaren perfekzioa eta sorkuntza-prozesuaren amaieran lortzen den emaitza hain daude elkarrengandik urrun, ezen artistak islatu duena bere barruan piztuta-ko su haren txingar dardaratia baino ez baita. Eta gaitzerdi, su horretatik txingarren bat ateratzeko gai bagara. Hain zuzen ere, Julio Ramón Ribeyro idazle peruta-rra barruan geratzen zaizki-gun liburuez mintzo da *La tentación del fracaso* obrako pasarte batean: “Duela gutxi, Cervantes irakurtzen nengoela, harrapatzeko astirik izan ez nuen ufada bat igaro zen nire aurretik (zergatik?, norbaitek eten ninduen, telefonoak jo zuen, ez dakit) zoritxarrez, zeren gogoratzen dut zer bait egiten hasteko bulkada sentitu nuela...



INIGO AZKONA

Gero, dena desegin zen. Denok dugu barruan libururen bat, beharbada liburu handiren bat, baina gure barne-bizitzaren anabasan oso gutxitan azaleratzen da, edo hain azkar agertzen da, arpoiaz jotzeko astirik ere ez dugula izaten”.

Eta diot nik, paperean iltzatutako hitzek ezin badute ufada hori arpoitu, are alferrika-koagoak izango direla airea jaurtitako hitzak, zehaztasunetik hain urrun dauden baina memorian irauteko eginak diruditen berba iheskorak. Ni txunditu egiten naute ahozkoan ere ondo moldatzen diren idazleak, onak esan nahi dut. Idatzian perfekzioaren bila ibilita, ahozkoan erabiliko dituzun hitzak

hain doiak izango ez direla jakiteak, ez al die beldurrik ematen ahoa zabaldu orduko? Marcel Duchampek esan omen zuen, pentsamenduak hitz eta esaldien bidez isurtzen hasten garen unean, dena doala pikutara. Eta, adibidez, idazle bat hizketan ikusten baduzu, erreparatu bere eskuei. Airean dantzatuko ditu, esan nahi duenari forma eman nahian bezala: idatziz-koan trebeak dira eskuak, ahozkoan baldar-rak eta histrionikoak. Eta erreparatu idaz-leen argazkiei ere: nola jartzen dituzte eskuak? Edo zigarretaren eta kafe-kika-raren aitzakia erabiltzen dute, edo eskua-rekin aho ertza tapatzen dute (irudi sin-boliko ederra: “Ixo, hik idazten baino ez dakik eta!”), edo eskua eskuaren kontra estutzen dute, edo besoak antxumatzen dituzte. Euren lana-besa eskuak izanda, bitxia da argazkietan ez jakitea zer egin hitzak eta ideiak transmititzeko

ezinbestekoak zaizkien hara-gi-puska horiekin. Nik ere ez, esan beharrik ez dago. Hobe, beraz, isilik, eta eskuak poltsikoetan. Hobe besoak, enborra, hankak eta burua ere poltsiko-an. Hobe plop!, desagertu, ahozkoan bartlebytu, isildu, zertarako hitz egin. Hobe lotan, hobe ametsetan, arkatza beti alboan, badaezpadan. ■



irudia:
Antton Olariaga

